


2020ko irailean Euskal AEko industria-prezioek % 0,1 egin dute gora aurreko hilaren aldean

2019ko irailarekin alderatuta, industria-prezioak % 4,0 jaitsi ziren

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,1 igo ziren 2020ko irailean aurreko hilaren aldean. Iraileko urte arteko tasa, azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza biltzen duena. -% 4,0 izan zen.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen 2020ko irailean sektore hauek izan dituztela prezioetako hazkunderik handienak, aurreko hilaren aldean: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 2,3ko igoera), *Produktu informatikoen, eelektronikoen eta optikoen fabrikazioa* (% 1,3koa) eta *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria* (% 0,9koa). Aitzitik, prezioetan sektore hauetan izan dira hilabete arteko beherakadarik handienak: *Kokeriak eta petrolioaren finntzea* (% 3,1eko jaitsiera), *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 1,2koa) eta *Ura* (-% 1,1).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, *Kontsumo-ondasunen* prezioak, oro har, % 0,9 igo dira aurreko hilaren aldean, zeren *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* azpisektorean % 1,0 igo baitira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* azpisektorean % 0,1. *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,1 igo dira, eta *Bitarteko ondasunenak* bere horretan dira, baina *Energiaren* sektorean % 0,1 jaitsi dira.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Iraila

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2020ira / 2020abu	2020ira / 2019ira
INDIZE OROKORRA	101,0	0,1	-4,0
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	107,2	0,6	0,2
Manufaktura-industria	101,3	-0,2	-3,3
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	105,2	0,9	2,0
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	108,3	-1,2	2,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	103,2	-0,6	-2,6
Kokeak eta petrolioaren fintzen	82,8	-3,1	-26,5
Industria kimikoa	108,1	-0,2	-0,5
Botiken fabrikazioa	108,2	0,0	-0,3
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	99,2	0,1	0,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	101,6	0,1	-0,7
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	104,9	1,3	3,1
Material eta ekipoen fabrikazioa	104,7	0,0	1,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	103,3	0,0	-4,0
Garraiorako materialen fabrikazioa	108,9	0,0	3,1
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	106,4	-0,1	1,2
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	99,1	2,3	-8,1
Ura	109,4	-1,1	3,3
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	105,7	0,9	2,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	104,3	0,1	0,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	105,9	1,0	2,5
Ekipo-ondasunak	108,0	0,1	0,6
Bitarteko ondasunak	101,7	0,0	-0,5
Energia	91,1	-0,1	-18,4

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan (2020ko iraila 2019koaren aldean), prezio-hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Ura* (% 3,3ko hazkundera), *Garraio-materialaren fabrikazioa* eta *Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa* (% 3,1eko igoera bietan). Alderantziz, prezioetan beherakadarik handienak sektore hauetan gertatu dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 26,5 behera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 8,1eko jaitsiera) eta *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* (% 4,0 behera).

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasun-talde handien prezioek urte arteko aldiaren izan duten aldakuntza positiboa izan da *Kontsumo-ondasunentzat* oro har hartuta, % 2,2ko igoera izan baitute; izan ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 2,5 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 0,8. *Ekipo-ondasunen* prezioak ere igo dira, % 0,6 urte arteko terminoetan. Aitzitik,

prezioak jaitsi egin dira *Energiaren* sektorean (% 18,4ko jaitsierarekin) eta *Bitarteko ondasunenean* (% 0,5ekoa).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62